



Zulo bat uretan

Iñigo Aranbarri

SUSA

198 orrialde

14,50 euro

Oroimenaren eta jarraitu beharraren artean

Itoizko urtegia betetzera doaz eta inguruko herriak urperatu behar dituzte, baita hilerriak ere. Kanposantu horietako batera bidali dituzte Maite Andueza antropologo forentsea eta Oscar Iriart etorkin argentinarra, hango gorpuzkinak berreskuratzeko, urak betirako irentsi baino lehen. Tartean sartuko da ordea “historiaren zabortegeiak irentsi aurretik” istorioak biltzea maite duen kazetaria. Eta haren bidez jakingo dute 1936ko Gerraren ondorioz hildako emakume baten gorpua egon daitekeela betirako urak irentsi dezakeen gorpuzkinen artean. Gorpu horren bila ari diren bitartean,

argentinarrek bere herrialdeko gorabeherak gogoratzen ditu, baita euskaldunek eurenak ere. ■

Toribio Alzaga antzerki lehiaketako iazko sariduna

Pablo Barrioren *Kontrako bidean* antzezlanaren izan zen iazko Toribio Alzaga antzerki lehiaketako irabazlea. Zahar etxe batera bere borondatez joandako senar-emazteen egoera kontatzen du liburuak. Senarrak oso argi du burua, baina gorpuzkinak ez dio erantzuten. Emazteari, berriz, burua ari zaio aldrebesten. Semeak eta bilobak asko maite dituzte. Etxera eraman nahiko lukete aita, ama egoitzan utzirik. Aita ez dator bat horrekin. Bilobak, bere aldetik, aitonen laguntza nahi du gaztetxe-

ko egitasmo baterako. ■

Kontrako bidean

Pablo Barrio

EUSKALZAINDIA, BBK

80 orrialde



MARIA GARIKANO

«Irrealtasunak duen errealtasunaren aldeko manifestu bat da»

Nola sortu zen nobela magiko hau?

Mila zortziehun eta laurogeita bateko goiz euri-tsu batean, R. L. Stevensonek uharte baten mapa marrazteari ekin zion topografo baten arretaz. Laster erabaki zuen uhartearen xehetasunak, muino zein leize, kala zein ainguraleku edo zingira eta toki bakoitzaren izena. Baita uhartearen izena ere: *Altxor Uhartea*. Irudizko mapa hark erabaki zuen, neurri handi batean, uhartean gertatuko zen istorioa. Idazleak berak esanda dakigu mapa hartan ikusi zituela estreinako aldiz piraten aurpegi likitsak eta altxor bilatzaileen joan-etorriak, orain mozkortuta, orain borrokan.

Zein testuingurutan idatzi zuen egileak nobela?

Garai horretan, naturalismoa zen jaun eta jabe Europako literaturan. Hila zen erromantizismoa, eta abentura nobelen garaia berarekin. Baina Stevensonek, lan honekin, bizkarra erakusten die nobelari dokumentu baten objetibotasuna eman nahi diotenei. Marcel Schowbek liluraturik irakurri zuen *Altxor Uhartea*, bere iritziz abentura nobelen artean ederrena; are gehiago, liburu hura manifestu bat ere badela irudituko zaio, irrealtasunak duen errealtasunaren aldeko manifestu literario bat, hain justu, literaturari bide berriak zabaltzen dizkiona. Eta ez zebilen oker Marcel Schowb liburuaren alderdi teoriko hori aipatzean.

Zergatik?

Altxor Uhartea, Stevensonen gainerako saiakera, ipuin, poema eta abar guztiak bezala, gogoeta sakon baten ondorio delako. Eta nobela honek, bere modura, giza esperientziaren berri ematen du.

egileari galdezka

Pirata baten kutxan aurkitutako uharteko mapa

Ametsak eta desirak ez al dira errealtatearen atal? Izan al da sekula urre bila ibili ez den umerik? Edo pirata, militar buruzagi ala bide-lapur izan ez denik? Honelako gogoetak zituen buruan R. L. Stevensonek *Altxor Uhartea* abenturazko nobela idazterako orduan. Jim Hawkins mutikoa du kontalari eta heroi nagusi eleberririk, eta haren begietatik ikusiko ditu irakurleak altxor bila espedizioan parte hartzen duten guztiak ezaugarriak. Helduen mundura egindako lehen bidaia da hura gaztearentzat, eta maiz nahastuta geratzen da ezagutzea egokitu zaion jendearen aurrean, ez baita gai haien artean zintzo-zintzorik, ez gaizto-gaiztorik aurkitzeko. Batere gustuko ez zuen pirata baten marinel-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldur-garriaren altxorra gordetzen zuen uhartearen



Altxor uhartea

R. L. Stevenson

ELKAR

316 orrialde

19,45 euro

mapa. Konfiantzako pertsonari bere aurkuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, *Hispaniola* baleontzian. Eskifaian, ordea, isilka sartu zitzaizkien altxorraren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoaren itsasoan jasaten ari zirenean. ■